



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

prestakuntza
sindikalaren

katalogoa

2015



Edukia

1. Prestakuntza politikoa, sindikala eta ideologikoa

- 1.1 ELA zer da?
- 1.2 Azterketa organizazionala, soziala eta politikoa egiteko tresnak
- 1.3 Ongizate-estatuaren loraldia eta krisia
- 1.4 Nazio auzia
- 1.5 Negoziazio kolektiboa
- 1.6 Genero-berdintasuna
- 1.7 Ingurumena
- 1.8 Nazioarteko esparrua
- 1.9 Immigrazioa
- 1.10 Politika publikoak

2. Prestakuntza organizazionala

- 2.1 Autolidergoa eta trebezia pertsonalak
- 2.2 Taldeko trebeziak
- 2.3 Komunikazioa
- 2.4 Komunikazioari aplikatutako teknologiak

3. Prestakuntza teknikoa eta juridikoa

- 3.1 Lan-zuzenbidea
- 3.2 Zuzenbidea eta ekintza sindikala
- 3.3 Lan-segurtasun eta -osasuna

Aurkezpena

"Prestakuntza Sindikaleko Katalogo" honekin gure sindikatuak eskaini ahal dizkizun ikastaroen berri eman nahi dizugu.

Ikastaro gehienek helburu praktikoa dute, kontua baita sindikatuko arduradun, edota zure enpresako langileen ordezkari nahiz delegatu zaren aldetik zure lana hobeto garatzea.

Lan sindikala konplexua da hainbat ikuspuntutatik; horregatik, uste dugu gure militanteen esku ahalik tresna gehien jarri behar dela, langile-klasearen onerako.

Ohiko prestakuntza baino zerbait gehiago

ELAk baliabide ekonomiko ugari eta talde zabal bat jartzen du gure arduradun eta militanteen prestakuntza sindikalerako. Prestakuntzaren baitan ikastaro eta hitzaldiak ematen dira, eta argitalpen sorta zabala ere badago (inprimatuak zein digitalak), liburuak, eskuliburuak eta beste bitarteko batzuk, esaterako webgunea eta sare sozialak.

1990ean ELAk erabaki zuen Prestakuntza Arloak fundazio baten forma juridikoa hartuko zuela; horrela sortu zen Manu Robles-Arangiz Institutua; izen hori, diktadura garaian gure lehendakari izan zenaren ohorez eman zitzaion. Forma juridiko honen xedea da sindikatuarentzat garrantzia duten kontuak erraztea, esaterako unibertsitateekiko lana eta gure herriko hainbat erakunde sozialekiko lankidetzak eta prestakuntza-hitzarmenak.

Prestakuntza Arloko pertsonekin batera, ELAko beste kide askok ere ematen dituzte gure ikastaroak. Batetik, sindikatuko beste arloetan lan egiten dutenak (zerbitzu juridikoak, ingurumena, generoa, ikerketak...) eta, bestetik, ELAko Nazio Batzordea, sindikatuaren zuzendaritza, osatzen duten 36 kideak. Bereziki estimatzen dugu pertsona hauek, eguneroko borroka sindikalean dihardutenak, ELAko sindikalisten prestatzaile ere izatea: Beren ezagutza praktikoa, zorrotasuna eta bultzada militantea medio prestakuntzako aditurik hoberenek eman ezingo luketeen plusa du gure prestakuntzak.

Gai-arloak

Gure prestakuntzak hiru gai-arlo zabal ditu:

Arlo ideologikoari (1) dagozkion ikastaroen bidez sindikalismoa, oro har, eta ELAren sindikalismoa, zehatzago, sakon ezagutzeko aukera izango duzu. ELA ez da erakunde profesional edo korporatibo bat; klaseko sindikatu abertzale bat da, eta horregatik bere egiten du, baita landu ere, agenda oso zabal bat, gai laboral, sozial, ingurumeneko eta politikoak barne. Arlo honen helburu nagusia sindikatuaren historia, ideologia, programak eta hainbat gairi buruzko posizioak ezagutzea da.

Arlo juridiko eta teknikoan (2) bildutako ikastaroen xedea da lan-harremanen esparruan jarduteko tresna konkrituak eskuratzea. Lan mundua eremu oso "arautua" da, eta horregatik garrantzi handia du gure eskubideak, erabilgarri ditugun tresna legalak eta gure lan-bizitzari dagozkion prozedurak ezagutzea.

Antolakuntza prestakuntza (3) arloko ikastaroekin gure trebezia pertsonalak eta taldekoak hobetu nahi dira, lan sindikala garatzeko. Zintzotasuna eta ezagutza da lan sindikalaren oinarria, baina hori ez da aski. Gure eginkizunerako beharrezkoa da ere talde militanteak bizkortzea; bilerak dinamizatzea; jendaurrean zein eremu pribatuan egoki komunikatzea, baita gure lana planifikatu eta estrategia egokia asmatzea ere.

Prestakuntza ikastaro hauetan nola parte hartu edo antolatu

Katalogo honetako ikastaro guztiak eskariaren arabera egiten dira, hots, interesa dutenek eskatu behar dituzte.

Zure enpresako langileen ordezkaria edo delegatu sindikala bazara, zure enpresari dagokion ELAko arduradunarengana jo behar duzu. Gehienez ikastaroa zure eskualdean izango da, ahal dela zure lantokitik gertuen dagoen ELAren egoitzan.

Sindikatuako arduraduna bazara (federazioaren bateko idazkaritzako kide edo ETEetako arduradun), zure eskaria federazioarekin eta eskualdearekin koordinatu eta Fundazioarekin harremanetan jarri behar zara.


Berez ez dago ikastaro bat egiteko gutxienezko partaide kopururik, baina baliabideak ahalik hobekien probesteko beti saiatuko gara prestakuntza berean interesa duen jendea biltzen, 15 eta 30 pertsona bitarteko taldeak osatu arte.

**PRESTAKUNTZA
POLITIKOA,
SINDIKALA ETA
IDEOLOGIKOA**

1.1 ELA zer da?

ELAren proiektu sindikala

1.1.1


 Sortu zenetik gure proiektuaren ezaugarri iraunkorrak zeintzu diren azaltzea: ELA, klaseko sindikatu abertzalea. Historiako oinarritzko datu batzu emateaz gainera, saioa bideo bat emanaz osatzen da.

 2 ordu.

 Prestakuntza Arloa

ELAren eredu eta estrategia sindikala

1.1.2


 Gure eredu sindikalaren ezaugarri nagusietan sakondu, esaterako autonomia politiko eta finantzarioa, izaera konfederala eta afiliazioaren garrantzia. Azken kongresu konfederalak esparru laboral, sozial eta nazionalean erabakitako ildo estrategikoak aipatu. Sindikatuaren Printzipio Adierazpena lantzeko aukera ere badago.

 2 ordu

 Prestakuntza Arloa

ELAren antolakuntza eta egitura

1.1.3

 Militantea lagundu bere lan-errealitatea antolakunde sindikalean kokatzen. Halaber, bere eginkizunerako lagungarri diren zerbitzu sindikal guztiak ezagutarazi.

 2 ordu.

 Eskualdeko idazkaria. Federazioetako arduradunak.

ELAren azken aldiko historia

1.1.4




 Sindikatuaren ibilbideko mugarriak, trantsizio politikitik hona.

 2 ordu.

 Prestakuntza Arloa

Sindikatuaren finantzak




1.1.5

-  Sindikatuaren finantzen inguruko azalpen zehatza. Finantza-iturriak. Gastuak. Ondorioz, afiliazioak gure eredu sindikalean duen garrantzia.
-  2 ordu
-  Prestakuntza Arloa. Nazio Batzordea

1.2 Azterketa organizazionala, soziala eta politikoa egiteko tresnak




Egoeraren azterketa

1.2.1

-  Militanteekin partekatzea Nazio Batzordean etengabe eguneratzen den egoeraren azterketa.
-  1,5 - 3 ordu
-  Idazkari Nagusia. Nazio Batzordea. Prestakuntza Arloa


Pentsamendu sistemikoa

1.2.2

-  Peter Senge-ren lana (La quinta disciplina) oinarritzat hartuta, organizazioetan izan ohi diren arazoak aztertzeko eta ikasketa kolektiboa ahalbidetzeko tresna sorta bat lantzen da.
-  2-4 ordu.
-  Prestakuntza Arloa.

Prozesuak eta mekanismoak

1.2.3

-  Borroka eta gatazka sozial eta politiko era desberdinak daude (iraultzak, trantsizioak, mugimendu sozialak, independizatze nazionala...). McAdam, Tarrow eta Tillyren lana abiapuntutzat hartuta («Dinámica de la contienda política») gertakari errelazional errepikakor multzo bat identifika daiteke: nola prozesuak (polarizazioa, eskala-aldaketa, aktoreen eratzea, desertzioa...), hala prozesu horiek elikatzen dituz-

ten mekanismoak (egiaztapena, artekaritza, kooptazioa, laidoen inposizioa...)

🕒 2-4 ordu

😊 Prestakuntza Arloa.

Klase-azterketa

1.2.4

📖 Prestakuntza honen xedea da gauza batetaz jabetzea: errealitate laboral, sozial edo politikoaren irakurketa oro ideologikoa da. Horretarako, modu praktikoan batik bat hizkuntzaren bidez gauzatzeko, manipulatzeke eta desitxuratzeko hainbat era aztertzen da.

🕒 2 ordu

😊 Prestakuntza Arloa

Taldean egoeraren azterketa bat nola egin

1.2.5

📖 Guztiok azter dezakegu egoera laboral, sozial, politikoa... Ez da eza-gutza berezirik izan behar. Ikastaroa oso praktikoa da, eta militante taldeek azterketa hori egin dezaten tresna metodologikoak eskaintzen ditu.

🕒 2 ordu

😊 Prestakuntza Arloa

1.3 Ongizate-estatuaren loraldia eta krisia

Ongizate-estatuaren loraldia eta krisia: 1945-1990

1.3.1

📖 Munduko bigarren gerrate ondorengo aldi ekonomikoa ulertzea da helburua, hots, ongizate-estatuaren hedapena ekarri zuena, hori legitimatu zuen ideologia aztertuz: gizarte-ituna edo kontzertazioa. 70etako hamarkadatik aurrera izan duen krisiaren hastapena aipatzen da.

🕒 2 ordu

☺ Prestakuntza Arloa

'Globalizazio neoliberala' izeneko aroa. 1990-2007 **1.3.2**

📖 Globalizazioa eta planeta mailako ekonomia iraunkor, berehalako eta immaterial baten agerpena, zeinaren ezaugarria finantziarizazioa den, egungo krisiaren hasieraraino.

⌚ Ordu 1

☺ Prestakuntza Arloa

Egungo krisia: 2007-2014 **1.3.3**

📖 Bizi dugun krisiaren azalpen lasaia. Bere jatorria, ematen ari zaizkion erantzunak eta proposatzen ditugun alternatibak.

⌚ 2 ordu

☺ Prestakuntza Arloa

1.4 Nazio auzia

Euskal instituzio politikoekiko hurbilpen historikoa **1.4.1**

📖 Historia instituzionalari buruzko hurbilpen laburra, Iñaki Lasagabasterrek Manu Robles-Arangiz fundazioarentzat egindako lana oinarritzat hartuta: foruen aboliziotik gaur egungo unerarte, autogobernuari dagokionez aldi berzentralizatzailea bizi dugularik.

⌚ 2 ordu

☺ Prestakuntza Arloa

ELAren historia politikoa **1.4.2**

📖 ELAren azken aldiko historia gure herriaren historia politikoan kokatzeko saioa, sindikatuak prozesu nazionalean eta euskal gizartean duen garrantziaz jabetzeko.

⌚ 2-4 ordu

☺ Prestakuntza Arloa

Espainiar trantsizio politikoa eta bere ondorenak **1.4.3**

📖 Frankismoaren ondoko erregimen politikoak eta espainiar trantsizioa egin zen moduak gaur arte baldintzatzen du gure herriaren bilakaera politikoa ez ezik baita sindikalismoa bera ere. Prestakuntza honen asmoa da inola ere eredugarria izan ez den gure historiako aldi baten kontzientzia hartzea.

🕒 1 hora

☺ Prestakuntza Arloa

1.5 Negoziazio kolektiboa

Lehen hitzarmena helburu! **1.5.1**

📖 Enpresa mailan lehenengo hitzarmen kolektibo bat lortzeko abian jarri beharreko prozesua ezagutu, konfederazioak horretarako propio proposatzen duen agiri eta protokoloan sakonduz. Zer lan egin behar da? Zein edukien alde egin beharra dago?

🕒 2 ordu

☺ Federazioetako arduradunak

Negoziazioa eta antolakuntza **1.5.2**


📖 Negoziazio kolektiboaren egoera politiko eta juridikoa ezagutu. Sail sindikalaren garrantzi organizatiboa ezagutu, hitzarmen kolektibo bat lortzeko ezinbesteko tresna gisa.

🕒 2 ordu

☺ Federazioetako arduradunak

Komunikazioa negoziatio kolektiboan **1.5.3**

📖 Komunikazioa funtsezko tresna da negoziatio-prozesu guztian zehar, baita balizko gatazka batean ere.


 2 ordu

 Federazioetako arduradunak

1.6 Genero-berdintasuna

ELAko genero-politikak

1.6.1


 ELAko Genero-berdintasun politika kokatu eta aztertzea, barnekoa (sindikatuko lan-ildo estrategikoak) zein kanpoko (beste erakunde sindikal eta mugimendu sozialekiko zentzu feminista duten aliantzak). Aurrez feminismoa eta mundu sindikalarekin duen harremana aurkezten da.

 2 ordu

 Genero-berdintasun politika arloa

Ekonomia feminista

1.6.2


 Ekonomia feministaren proposamenen eta bizitzaren iraunkortasuna oinarri duen eredu-aldaketaren aurkezpena. Saio teorikoaz gainera hainbat esparrutan gauzatzen ari diren alternatiba konkretuak azaltzen dira.

 2 ordu


 Genero-berdintasun politika arloa

Bortizkeria sexista

1.6.3


 Bortizkeria sexistaren kontzeptuaren eta genero-desberdintasunarekin duen lotura estrukturalaren azalpena.

 Aldakorra

 Sindikatutik kanpoko profesionalek ematen dute, Genero-berdintasun politika arloarekin koordinatuta.

1.7 Ingurumena


Energia trantsizioa:erantzun beharreko erronka **1.7.1**

 Energia fosilen agortzea eta honen aurrean ematen ari zaizkigun soluzio faltsuak baztertze aldera (fracking,...), energia berriztagarriak dituzten aukerak eta Euskal Herrian ditugun alternatibak azalduko dira.

 2 ordu

 Ingurumen arloa


Ekonomiaren trantsizio sozial eta ekologikoa: enplegu berdeen aukera **1.7.2**

 Gaur egun dugun krisi sistemikoaren aurrean beharrezkoa dugu aldaketa, eta trantsizio hori irizpide ekologiko eta sozialarekin egin behar da justizia soziala eta benetako iraunkortasuna izan dezagun. Pentsamolde orokorrak trantsizio hau enplegu galerarekin lotzen du, baina benetan kalitatezko enplegua sortzeko aukera bat da.

 2 ordu

 Ingurumen arloa


Klima Aldaketa. Zer espero behar dugu COP21aren ondoren? **1.7.3**

 Klima aldaketa guztion ahotan dabilen gaia da, baina ba al dakigu benetan zer dioten zientzialariek eta zer datorkigun hurrengo urteetan? Klima aldaketari berandu baino lehen aurre egiteko eman beharreko pausuak eta hartu beharreko neurriak izango ditugu aztergai.

 2 ordu

 Ingurumen arloa

Ingurumena enpresan **1.7.4**

 Ingurumen araudia ez da enpresari traba egiteko sortua izan, nahiz eta sarritan mehatxu gisa erabili den. Kurtsu honetan enpresan ingurumena babestea lanpostuak defenditzearen sinonimo dela ikusiko

dugu. Horretarako enpresak bete beharreko ingurumen araudia aztertuko da eta militante sindikal batek izan behar duen jarrera aztertu.

🕒 2 ordu

😊 Ingurumen arloa

Hondakinen kudeaketa iraunkorra

1.7.5

📖 Gatazka politikoaren erdian jarri duten gai hau modu objetiboan azaldu nahi da, datuekin eta eskura ditugun sistema ezberdinak aztertuz. ELAk gai honetan duen jarrera eta urte hauetan izan dugun ibilbidea azaltzea ere ezinbestekoa da.

🕒 2 ordu

😊 Ingurumen arloa

Elikadura burujabetza: zergatik eta nola

1.7.6

📖 Zein eragin du nazioarteko elikagaien merkataritza sistemak ingurumenean, osasunean, tokiko ekonomian, lan baldintzetan...? Sistema krudel honen aurrean alternatiba ugari eskura ditugula azaltzea da ikastaro honen helburuetako bat.

🕒 2 ordu

😊 Ingurumen arloa

Mugikortasun iraunkorra

1.7.7

📖 Ikastaro honek bi helburu nagusi ditu: batetik gaur egun dugun gehiegizko mugikortasunaren arazoak eta irtenbideak topatzea, eta bestetik etorkizuneko garraiobide iraunkor gisa saldu nahi diguten Abiadura Handiko Trenak zer suposatzen duen azaltzea, eta zein alternatiba dauden zabaltzea.




🕒 2 ordu

😊 Ingurumen arloa

1.8 Nazioarteko esparrua




ELA nazioarteko mailan

1.8.1

-  ELAren nazioarteko jarduera hasieratik gaur arte. Gure estrategiaren bilakaera. Egungo lehentasunak eta lan-ildoak.
-  Ordu eta erdi
-  Nazioarteko arloa




Askatasun sindikala munduan

1.8.2

-  Gobernuek askatasun sindikalaren aurka egiten dituzten politiken eta hartzen dituzten erabakien azterketa. Ondorioak. Irakurketa orokorra. Egoeraren baitan herri desberdinak hauta daitezke, edota adibide konkretuak, esaterako Greziak Troikarekin jasan duen egoera.
-  2 ordu
-  Nazioarteko arloa


Merkataritza eta inbertsioei buruzko akordio berriak: TTIP, CETA, TISA

1.8.3

-  Zerbitzuen merkataritzari buruzko akordioa merkataritza eta inbertsioak arautzeko negoziatzen ari diren itun berrien ale bat besterik ez da. TISArekin gainditu egin nahi da Dohako zerbitzuen inguruko negoziazioak izan duen geldialdia, eta zerbitzuen salerosketa erabat liberalizatzeko programa osatu. Horrek geratzen diren zerbitzu publikoen aurkako eraso zuzena ekarriko du.
-  Ordu t´erdi
-  Nazioarteko arloa. Prestakuntza arloa.

1.9 Immigrazioa

Atzeritartasunaren inguruko galderarik ohikoenak **1.9.1**


 Atzeritartasunari buruz sortzen diren galdera ohikoenei erantzun nahi da kurtso honekin, irizpide politikoak zein juridikoak kontutan harturik. "Xurrumurruek aurkako dinamika" bat ere egiten da, immigrazioari buruzko aurreiritziak apurtzen joateko: azal desberdina baina klase bakar bat, langile-klasea!

 2 ordu

 ELAren immigrazio arloa

1.10 Politika publikoak


Enplegu-politikak **1.10.1**

 Enpleguaren egoeraren azterketa, eta EAEko eta Nafarroako erakundeek gai honetan egiten dituzten politikena (enplegu-planak, prestakuntza, etab.). ELAren alternatibak.

 2 ordu

 Azterketa Bulegoa

Etxebizitza-politikak **1.10.2**


 Egoeraren azterketa, azken gertakariak eta datu estatistikoak. Politika instituzionalen azterketa eta proposamen alternatiboak.

 2 ordu

 Azterketa Bulegoa

Zorren sistema eta herritar ikuskaritza

1.10.3


 Zor publikoa ordaindu egin behar al da? Zorren sistemaren azalpena eta herritar ikuskaritza prozesuen premia. Beste esperientzia batzuren irakasgaiak.

 2 ordu

 Azterketa Bulegoa

Gizarte-prestazioak

1.10.4


 Gutxieneko diru-sarrera bermatuak eta beste gizarte-prestazio batzuk: kontzeptua eta jasotzeko eskakizunak. Gizarte-prestazioak gaur zertan diren.

 2 ordu

 Azterketa Bulegoa

Fiskalitatea

1.10.5


 Euskal Herrian politika neoliberalen testuinguruan ezartzen den zerga-politika. ELAren alternatibak.

 2 ordu

 Azterketa Bulegoa

Aurrezki-kutxen harrapaketa: CAN eta Kutxabank

1.10.6

 Sindikatua mobilizatu egin da eta kritika egin du euskal kutxen pribatizazioa dela-eta. Sakoneko lanak egin dira gai hauei buruz, Kutxabank nahiz Nafarroako Aurrezki Kutxari dagokionez.

 2 ordu

 Azterketa Bulegoa


PRESTAKUNTZA ORGANIZAZIONALA



2.1 Autolidergoa eta trebezia pertsonalak

Denboraren kudeaketa eta efikazia

2.1.1

 Laneko denbora antolatzeko dugun zailtasunaren zergatiak ezagutu. Gure eginbeharrak premiaren eta garrantziaren arabera sailkatzen ikasi. Gure eginbeharrei koherentzia ematen ikasi, helburuen arabera.


 2 ordu

 Prestakuntza Arloa

2.2 Taldeko trebeziak

Sail sindikalaren antolakuntza

2.2.1


 Sail sindikal bat nola antolatu. Enpresari buruz zer jakin behar dugun. Ardurak nola banatu.


 2 ordu

 Arduradun federalak

Inteligentzia emozionala

2.2.2


 Pertsonok ditugun inteligentzia anitzetaz jabetu. Erabateko lehentasuna kontzientzia arrazionalari ematearen arazoak. Inteligentzia emozionalaren garrantzia giza-harremanetan. Zer da inteligentzia emozionala. Norbere eta besteen emozioak nola ezagutu eta horiei nola erantzun.


 2 ordu

 Prestakuntza Arloa

Bileren dinamizazioa

2.2.3


 Bilera eragingarriak nola egin. Aurrez prestatu beharra eta ondoren zer egin. Bilera mota desberdinak. Helburuen, deialdiaren, gai-ordenaren eta denbora errespetatzearen garrantzia. Bilerako rolak. Akta eta erabakiak.

 2-4 ordu

 Prestakuntza Arloa

Talde-lana eta ekipo-lanaren kudeaketa

2.2.4


 Talde eta ekipoaren arteko desberdintasuna. Ekipo-lana zergatik. Taldean pertsonak hobereena ematea nola lortu. Efikaziaren eta pertsonen arteko harremanen oreka. Motibazioa. Giroa.

 2 ordu

 Prestakuntza Arloa

Enpresetako lan-planak

2.2.5

 Enpresaren egoerari buruzko diagnostikoa egiten ikasi. Helburuen definizioa. Eginbeharrak, epeak, ardurak. Plana ondo doalako adierazleak. Planaren jarraipena nola egin.


 2 ordu


 Prestakuntza Arloa

2.3 Komunikazioa

Ahozko komunikazioa

2.3.1


 Entzuleen arreta bereganatzeko ahozko komunikazio bat nola prestatu eta gauzatu. Testuaren garrantzia; keinuak; begirada; tonuak; denborak...

 2-4 ordu


 Prestakuntza Arloa

Prensa-oharrak eta informazio-zirkularrak

2.3.2


 Prensa-oharrak, komunikatuak, informazio-orriak egiteko beharrezko eta oinarrizko edukiak azaldu, beti ere estilo apal eta eragingarriekin.


 2 ordu


 Prensa-bulegoa. Prestakuntza arloa

Iritzi-artikuluak

2.3.3

 Baliabideak ematea iritzi-artikuluen idazketa, egitura eta edukiak hobetzeko. Ideiak bildu eta antolatu. Tituluen eta hasieraren garrantzia. Metaforen, irudien eta adibideen erabilera.


 2 ordu


 Prensa-bulegoa. Prestakuntza arloa

2.4 Komunikazioari aplikatutako teknologiak

Sare sozialak eta blogak

2.4.1

 Gure lan sindikalean sare sozialek eta blogek duten garrantzia. Mezuaren transmisioa; gardentasuna; polemika; harremanak; mobilitazioak.

 2-4 ordu

 Murgil Taldea. Prestakuntza Arloa

PRESTAKUNTZA TEKNIKOA ETA JURIDIKOA




3.1 Lan-zuzenbidea

Soldata eta nomina

3.1.1


 Soldata nola finkatzen eta ordaintzen den. Nominaren egitura.


 1-2 ordu

 Kasuan kasu erabakiko da.

Langabezia. Gizarte-Segurantza

3.1.2


 Langabezia-prestazioa nola jasotzen den, zein baldintzatan. Beste prestazioak bateragarriak ote diren. Langabezia-laguntza. Gizarte-Segurantzaren prestazio sistema.


 1-2 ordu

 Kasuan kasu erabakiko da.

Kontratazioa, ABLEak. Kaleratzea

3.1.3


 Kontratu motak: eskakizunak, formak, kontratuen dinamikak. Enpleguko bitartekaritza. Langileen lagapena. ABLEa. Lan-kontratua amaitzeko eta kaleratzeko zioak. Kaleratzearen kostua. Nola jokatu.


 1-2 ordu

 Kasuan kasu erabakiko da.

Lan-denbora. Lanaldia

3.1.4


 Lanaldiaren iraupena eta banaketa. Atsedena. Aparteko orduak eta ordu osagarriak. Oporraldia. Lizentziak. Lanaldiaren murrizketa.


 1-2 ordu

 Kasuan kasu erabakiko da.

Zigorrak

3.1.5


 Enpresarioaren diziplina-ahalmena eta zigorrak ezartzeko eskumena. Zigor-prozedura. Inpugnazioa. Hutsegiteen preskripzioa.


 1-2 ordu

 Kasuan kasu erabakiko da.

Baldintzen funtsezko aldaketa

3.1.6


 Mugikortasun funtzionala eta geografikoa. Lan-kontratuaren aldaketa. Etenaldia. Enpresaren titular aldaketa. Lan eta zerbitzuetarako kontratak.


 1-2 ordu

 Kasuan kasu erabakiko da.

Lan- eta famili-bizitzaren kontziliazioa

3.1.7

 Lanaldi murrizketak. Eszedentziak. Lanpostua gordetzea. Prestazioak eta Gizarte-Segurantzarekiko hitzarmen bereziak.


 1-2 ordu


 Kasuan kasu erabakiko da.

3.2 Zuzenbidea eta ekintza sindikala

Langileen ordezkarien berme, betebeharrak eta eskubideak

3.2.1


 Langileen ordezkariak dituzten eskubide eta bermeak ezagutzea komeni da beren eginkizuna hobeto bete ahal dezaten.


 1-2 ordu

 Kasuan kasu erabakiko da.

Hauteskunde sindikalak

3.2.2

 Hauteskunde sindikalak sustatu eta egiteko prozeduraren azalpena.


 1-2 ordu

 Kasuan kasu erabakiko da.

3.3 Lan-segurtasun eta -osasuna

Lan-arriskuen prebentziorako legea

3.3.1


 Lan-segurtasun eta -osasunari buruzko araudiaren oinarritzko azalpena ikuspuntu sindikaletik.

 5 ordu

 Lan-Osasuneko arloa

Amiantoa, auzi sindikala

3.3.2


 Amiantoaren inguruko arazoak ezagutu eta lan-bizitzan zehar gai honekiko kontaktua izan bada zer egin behar den.

 2 ordu

 Lan-Osasuneko arloa

Silikosia

3.3.3


 Kristal-silizeari eta osasunean duen eraginari buruzko oinarritzko datuak; lan-bizitzan zehar silizearekin kontakturik izan bada edo izaten ari bada egin beharrekoa.

 2 ordu

 Lan-Osasuneko arloa




Arriskuen prebentzioa haurdunaldian

3.3.4

 Haurdun dauden emakumeek dituzten Lan-Arriskuen Prebentziorako 31/95 Legean jasotako eskubideak, lanpostuan arriskurik balego, eta zer egin behar den kasuan kasu.

 Ordu bat

 Lan-Osasuneko arloa

-  Enpresan istripu bat gertatuz gero eman behar diren pausuak ezagutu. Zer egin behar da aurretik; istripua gertatzerakoan eta gertatu eta gero.
-  2 ordu
-  Lan-Osasuneko arloa